



# KulturGest Bilbao- UPV/EHU Uda Ikastaroak: Gure Ondarea kudeatzen: modelo eta perspektiba berriak



**Eka. 24 2022**

**Kod. K05-22**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2022

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Eka. 24 2022

**Kokalekua**

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

**Hizkuntzak**

Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



## Azalpena

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoak kultura ondarearen kudeaketan parte hartzen duten eragileen sare handi bat du, eta sare horren helburu nagusia ondarea babestea eta zabaltzea da. Kultura ondarearekin lotutako ekimen publiko edo pribatu guztiak helburu horiek lortzera bideratu beharko lirateke.

Ikastaro honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko kultura ondarearen kudeaketarekin lotutako hainbat alderdiri buruzko gogoeta egingo da: egungo egoera, sortzen ari diren kudeaketa-ereduak eta etorkizuneko ikuspegiak, genero-ikuspegia edo iraunkortasuna bezalako ikuspegi berriak barne hartzen dituztenak.

Horretarako, lanean ari diren interes-talde batzuen ordezkariak izango ditugu, gure kultura ondare materiala zein immateriala ezagutzen, planifikatzen, kontrolatzen eta zabaltzen laguntzen diguten oinarritzko tresna batzuk erakusteko.

Alde batetik, herri-administrazioari dagokio euskal kultura ondarea babestea eta zabaltzea, bai eskualdeetako bai probintzietako erakundeen artean (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak). Dagozkion eskumenak maiatzaren 9ko 6/2019 Euskal Kultura Ondarearen Legean deskribatzen dira.

Bestetik, sektore pribatua eta kultura-kudeatzaileak, bai eta euskal herritarrak ere, funtsezko partaide aktiboak dira gure ondarea kudeatzen eta zabaltzen duen ekosistema honetan.

Jardunaldiaren helburua da jendeari gaur egun parte hartzen duten hainbat eragile eta lanean jarraitzeko eta gure ondarearen garrantzia ikusarazteko ditugun bitartekoak erakustea.

### Helburuak

Publiko desberdinei Euskal Kultura Ondarearen kudeaketa-egituran eta horretan parte hartzen duten eragile, erakunde eta interes- taldeak erakustea.

Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondarearen kudeaketaren arloan egun dauden hainbat ekimen eta zenbait proiektu ezagutzera eman.

Kultura-ondarearen kudeaketan 2030erako agendan ezarritako garapen-helburuekin (genero-berdintasuna, jasangarritasuna, etab.) bat datozen eredu inklusibo eta jasangarri berriak ezartzeko beharrari buruz hausnartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondarearen kudeaketan eredu berriak ezartzeak dituen erronkei eta horiei erantzuten saiatzeko sortutako erakunde eta ekimenei buruzko eztabaida sortzea.

### Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



# Programa

**2022-06-24**

09:00 - 09:15	Registro
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Enara Artetxe Sánchez</b>   Profesora UPV/EHU - Coordinación del curso
09:30 - 10:30	“Administrazio publikoaren erronkak kultura ondarearen kudeaketan” <b>Ainhoa Bernabé Aranberri</b>   Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco - Técnica Dirección de Museos, Dirección de Patrimonio
10:30 - 11:00	“De lo adaptado a lo controlado: el reto del traslado de las colecciones de Museo Vasco de Bilbao a un deposito de reserva externo” <b>Ziortza San Pedro Calleja</b>   Técnica de Colecciones del Museo Vasco de Bilbao
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:00	“Interpretar el patrimonio cultural desde la perspectiva de género. Una cuestión ineludible” <b>Ainara Martínez Matía</b>   Proyecto Women’s Legacy
12:00 - 13:15	Mahai ingurua: “Nuevos modelos para la gestión del patrimonio “ <b>Alazne Porcel Ziarsolo</b>   Profesora UPV/EHU - Coordinación del curso (Moderatzailea) <b>Ainara Martínez Matía</b>   Proyecto Women’s Legacy <b>Haizea Barcenilla García</b>   Profesora UPV/EHU - Coordinación del curso <b>Ainhoa Bernabé Aranberri</b>   Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco - Técnica Dirección de Museos, Dirección de Patrimonio <b>Ziortza San Pedro Calleja</b>   Técnica de Colecciones del Museo Vasco de Bilbao
13:15 - 13:30	Itxiera <b>Alazne Porcel Ziarsolo</b>   Profesora UPV/EHU - Coordinación del curso <b>Patxi Juaristi Larrinaga</b>   UPV/EHU - Director de los cursos Kulturgest Bilbao - UPV/EHU Uda Ikastaroak <b>Enara Artetxe Sánchez</b>   Profesora UPV/EHU - Coordinación del curso

## Zuzendaritza



### **Enara Artetxe Sánchez**

UPV/EHU

---

Arte Ederretan doktorea UPV/EHU. Gaur egun, EHUko Pintura Sailari atxikitako irakaslea da, eta Kultura Ondasunen Kontserbazioa eta Zaharberritzea graduan eta Arte Garaikidearen Kontserbazioa eta Erakusmoldeak Unibertsitate Masterrean irakasten du. Bere ikerketa-ildoak obra grafiko, argazki eta pinturaren kontserbazioan oinarritzen dira.



### **Alazne Porcel Ziarsolo**

UPV/EHU

---

Arte Ederretan lizentziatua eta doktorea (UPV/EHU, 2012) eta Artearen Historian Graduatua (UNED, 2015). Gaur egun, irakasle atxikia da UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Pintura Sailean. Bertan Ondare Kulturalen Kontserbazioa eta Zaharberritzeari buruzko graduan eta Arte Garaikidearen Kontserbazio eta Erakusmoldeak (CYXAC) Unibertsitate Masterrean irakasten du. Bere ikerketa lerro nagusiak arte garaikidean eta ehun eta material sintetikoen kontserbazioan oinarritzen dira. Teknologia berrien erabilera ondarearen azterketan eta hedapenerako ere aztergai ditu eta ondarearen eta arteen hezkuntza eta didaktikarekin lotutako proiektuetan ere kolaboratzen du Hezkuntza Fakultateko Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saileko irakasleekin

## Irakasleak



### **Haizea Barcenilla García**

UPV/EHU

---

Artearen Historian Doktorea, EHU/UPV eta MFA Curating, Goldsmiths College, London. Bere ikerketa ildoak genero ikuspegitik aztertutako museologia, komisariotza eta arte garaikidea dira, artea publikoarekin elkartzean ematen den begiradaren eraikitzea eta diskurtsoen eraikuntza aztertuz. Honela, emakume artistak historian barnebiltzeko erakusketen funtzioa aztertu du eta baita begirada eta zaurgarrien irudikapen artistikoaren inguruan gogoeta egin du zeharargiko estrategiaren bitartez). Komunaren antolakuntza eta ekonomia feminista ardatz duten praktika kulturalak ere aztertu ditu Malagako Unibertsitateko Prácticas de subjetividad en las artes contemporáneas I+D proiektuko zein EHU/UPVko GizaArtea ikerketa taldeko kidea da. Hainbat erakusketen komisario izan da, eta kritikaz arduratzen da Berria egunkarian zein Euskadi Irratiko Amarauna programan.



### **Ainhoa Bernabé Aranberri**

Gobierno Vasco, Técnica de Patrimonio Cultural

---

Ainhoa Bernabé Aranberri Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren Museoen Zerbitzuko kultura-ondareko teknikaria da, . Historian lizentziatua eta Euskal Arte Garaikidean espezializatua, gaur egun museoentzako diru-laguntzak izapidetzeaz, zerbitzurako proiektuak eta txostenak proposatzeaz eta idazteaz, eta Orkonera-Lutxanako Industria Ondare Higitzearen Bilduma kudeatzeaz arduratzen da. EMSIME Euskadiko Museoen Katalogo Kolektiboaren arduraduna ere bada.




### **Patxi Juaristi Larrinaga**

UPV/EHU , Doctor en Sociología. Profesor en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Información

---

Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) unibertsitateko irakasle titularra da Gizarte eta

Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazio Zientzia Sailean. Soziologian lizentziaduna (1990) eta doktorea (1995) da, eta UPV/EHUko irakaslea, 1993az geroztik. 1998an irakasle bisitaria izan zen Idahoko Unibertsitatean (AEB). 2005etik 2009ra bitarte, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate arloko zuzendaria izan zen. 2011tik 2012ra, Gobernantza eta Politika Ikasketak Masterreko koordinatzailea izan zen, eta, 2015. urteaz geroztik, UPV/EHUko Hizkuntza Politikak eta Plangintza Masterreko idazkari akademikoa da. 2009tik 2017ra UPV/EHUko Gizakiekin egindako Ikerketarako Etika Batzordeko (GIEB) kidea izan da. Halaber, UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolako Kalitate Batzordeko kidea da (2016). Artikulu ugari eta 13 liburu argitaratu ditu euskal kultura, euskaldunen balio, euskara eta, oro har, hizkuntzei buruz. Gerra Zibilarekin eta memoria historikoarekin lotutako gaien gainean ere ikertu eta argitaratu du. Enpresa edo/eta administrazioekin gauzatutako I+Gko 33 kontratutan eta deialdi publikoetan finantzatutako I+Gko 18 proiektutan parte hartu du, eta horietako batzuen zuzendaria izan da.



### **Ainara Martínez Matía**

Proyecto Women's Legacy

---

Ainara Martínez Matía (doctora en Historia del Arte por la Universidad del País Vasco) tiene como una de sus líneas de investigación prioritarias la aplicación de la perspectiva de género al conocimiento, protección, interpretación y difusión del patrimonio cultural. Desde 2014 ha colaborado en diversos estudios en este sentido, destacando su trabajo «Cuestión de género, una nueva forma de proteger el patrimonio cultural» (Gobierno Vasco, 2017) y su labor de coordinación en la redacción del «Libro Blanco para la Interpretación del Patrimonio Cultural desde la perspectiva de género» (Diputación Foral de Bizkaia, 2021). Centra sus esfuerzos en desarrollar herramientas efectivas para la creación de nuevas narrativas en las que se reconozca el papel de las mujeres a lo largo de la historia. Es parte del equipo Women's Legacy, un proyecto transnacional para visibilizar las aportaciones de las mujeres al patrimonio europeo. En la actualidad es directora técnica de La Encartada Fabrika Museoa.



### **Ziortza San Pedro Calleja**

Euskal Museoa Bilbao, Teknikaria

---

Ziortza San Pedro es Diplomada en Arqueología (1995) y Licenciada en Geografía e Historia por la Universidad de Cantabria (1997). Continúa sus estudios de tercer ciclo (2000) en la Facultad de Bellas Artes (UPV/EHU) en el programa de Criterios y Técnicas de Conservación y Restauraciones de Bienes Culturales. Su actividad profesional se inicia en el año 2000 en el Museo Vasco de Bilbao ocupándose de la gestión digital de las colecciones. Paralelamente ha realizado diversos cursos de especialización en el campo de la conservación del patrimonio cultural con especial atención a la gestión, preservación y difusión de archivos fotográficos. Actualmente es técnico de Colecciones en el Museo Vasco de Bilbao.

# Matrikula prezioak

**AURREZ AURRE**

**2022-06-24 ARTE**

---

Matrikula doan

0 EUR

---

**ONLINE ZUZENEAN**

**2022-06-24 ARTE**

---

Matrikula doan

0 EUR

---



# **Kokalekua**

## **Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia